



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Dokumentu mota / Tipo de documento:	ERDIBIDEKO ZUZENKETA
Nori zuzendua / Dirigido a:	LEGEBILTZARREKO MAHAIA
Proposatzailea / Proponente:	ALVAREZ, GORKA (EA-NV) CASTELO, ALEXIA (ES-SV) RUIZ, YAHCOV (EP)
Data / Fecha:	2020.01.17
Espediente zenbakia / Número de expediente:	11/11/02/01/00691

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:

Espainiako Gobernuaren dekretazo digitalaz, "155 digital" edo "mordaza digital" bezala ezagutzen den urriaren 31ko 14/2019 Lege-dekretuaren bidez, komunikazio-zerbitzu digitalak bere gain hartzearen inguruan. / En relación con la asunción de los servicios digitales de comunicación mediante el decretazo digital, el Decreto-Ley 14/2019, de 31 de octubre, que ha sido calificado como "155 digital" o "mordaza digital", del Gobierno español.

1.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, bere Zerbitzu Juridiko Nagusiak emandako prozedura-irizpenean oinarrituta, erabaki dezala konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa jartzea urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege Dekretuaren aurka, eta Estatuko Administrazio Orokorrari gonbita egin diezaiola lankidetzarako alde biko batzordea eratzeko Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoko 33.2 artikulua araberako, aipatu aginduan, konstituzionaltasunari dagokionez, bi gobernuen artean dauden aldeak konpontzeko.

2.- Eusko Legebiltzarrak Gobernu zentralari eskatzen dio negoziatu dezala aipatutako Errege Lege Dekretuaren erreforma Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioekin, hura baliozkotzeko egin den eztabaidan sortutako desadostasunak gainditzeko, honako hauek bermatzeko:

1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, sobre la base del dictamen de procedibilidad emitido por su Servicio Jurídico Central, acuerde interponer un recurso de inconstitucionalidad contra el Real Decreto-ley 14/2019, de 31 de octubre, e invitar a la Administración General del Estado a constituir la comisión bilateral de cooperación ex art. 33.2 LOTC para solventar las diferencias existentes entre ambos ejecutivos en relación con la constitucionalidad del citado precepto.

2.- El Parlamento Vasco insta al Gobierno central a negociar con los grupos parlamentarios del Congreso de los Diputados la reforma del citado Real Decreto-Ley, con el propósito de superar las discrepancias surgidas en el debate celebrado para su convalidación, de tal forma que se garantice:





- Administrazio publikoek eremu digitalean egiten dituzten jarduketek ez eragitea oinarriko eskubideei, hala nola informaziorako eskubideari eta adierazpen-askatasunari, eta ziurtatzea beti dagoela edozein jarduketaren gaineko berehalako kontrol judiziala.
- Komunikazio-sare eta -zerbitzu elektronikoek esku hartu ezin izatea, baldin eta esku-hartze horrek ordenamendu juridikoan dauden oinarriko eskubideak eta askatasun publikoak murriztea badakar, eta betiere berehalako kontrol judizialaren menpe geratuz.
- Jarduera uzteko agindu orok arrazoitua izan behar du, aldez aurreko entzunaldirik gabe, eta berehala errekurritu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- Identifikazio elektronikoko sistemak ukatzeko erabakien kontrolean autonomia-erkidegoen esku-hartzea sartzea, Segurtasun Nazionalako Gaietarako Konferentzia Sektorialaren bidez, erabakia hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean.
- Identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema anitzen erabilera ez eragozteko, identifikazio digitaleko zerbitzua pribatutasuna babestearekin bateragarri egiten dutenak barne, hala nola blockchain oinarritutako identifikazio-sistema banatuak.
- Que ninguna actuación por parte de las Administraciones Públicas en el ámbito digital pueda afectar a derechos fundamentales como el derecho a la información y la libertad de expresión, asegurando que exista siempre control judicial inmediato a cualquier actuación.
- Que no se pueda producir la intervención de redes y servicios de comunicación electrónicos si dicha intervención pueda suponer una restricción de los derechos fundamentales y libertades públicas presentes en el ordenamiento jurídico, quedando siempre supeditada a control judicial inmediato.
- Que toda orden de cese de actividad deba ser siempre motivada si se adopta sin audiencia previa y recurrible inmediatamente ante el orden jurisdiccional contencioso administrativo.
- Que se incluya la intervención de las Comunidades Autónomas en el control de las decisiones denegatorias de sistemas de identificación electrónica, a través de la Conferencia Sectorial para asuntos de Seguridad Nacional, en un plazo máximo de tres meses desde la adopción de la decisión
- Que no se imposibilite el uso de múltiples sistemas de identificación y firma electrónica, incluyendo aquellos que compatibilicen el servicio de identificación digital con la salvaguarda de la privacidad, como puede ser el caso de los sistemas distribuidos de identificación basado en blockchain.

EA-NV

EP

ES-SV

